



2.1 BALOREZKO PROPOSAMENA

Goierriko hainbat gazte gara eta inguruko herri txikiak indarra galtzen ari direnez eta gu geuk Gaintzan baso bat dugunez, baso horretan asteburuak pasatzeko zuhaitz-etxeak sortuko ditugu herri txikiak indartzeko eta haien anaitasuna zabaltzeko. Zuhaitz-etxeak asteburu lasai bat pasatzeko, naturaz disfrutatzeko, erlaxatzeko eta familikide, lagun edo bikotearekin joateko egingo ditugu. Horrez gain, naturaz disfrutatzeko eta inguruko produktuei probetxua ateratzeko aukera ona izango litzateke.

Zuhaitz-etxez inguratutako eremu bat eraikiko da, eta honekin batera, egurrezko bi etxola handiago eraikiko dira, inguruko herri eta hirietatik asteburu-pasa edo oporraldi motzak pasatzera jendea etor dadin. Bertako egonaldiak, natur-ingurunea ezagutu, bertako produktuak dastatu eta eguneroko bizitzako erritmo azkarra hautsi eta lasaitasunaz gozatzeko ezinbesteko lekua izango da.

Basoan dauden zuhaitz sendoen inguruan eraikiko dira zuhaitz-etxeak. Etxe bakoitza mimo eta gustu handiz diseinatu egongo da. Bakoitzak bere logela, komuna eta bainuontzia izango ditu, eta leiho izugarriak bertako paisaiaz gozatzeko. Etxe guztiak jasangarriak izango dira, erabilitako materialak, inguruan ditugun basoetatik ateratako zurez osatuak egongo baitira: etxeak, oheak, armairuak, aulkiak... Etxolak, berriz, bi logelaz, egongelaz eta komuna bere bainuontziaz osatuak egongo dira, eta horietako bat, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat erabat egokitua egongo da.

Zerbitzuan bertan, gosariak eta afariak eskainiko dira. Kalitate handienez osatutako menuak, eta horretarako, inguruan ditugun baserriak eta nekazarien produktuak erabiliko ditugu, hau da, km 0-ko produktuak. Hauen jatorria ezagutu nahi izanez gero, egunean zehar bisitak antolatuko dira baserri eta ekoizle hauen baratzetara, eta tailerrak egiteko ere aukera eskainiko da. Adibidez, ogi- edo talo-tailerrak, gaztagintza, marmelada nola egin eta haurrentzako animaliekin egoteko jarduerak. Egunean zehar, inguruko mendi- eta baso-ibilbideak egiteko aukera egongo da, bertako botanika ezagutu, bertan bizi diren bizidunak ezagutu, txori desberdinen kantuak ezagutzeko ibililaldiak eta naturaz modu desberdin batean gozatzeko aukera egongo da.